

MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREN HEDAPENA Udal-eremua



MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA

PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACION



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA

PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN

MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREN HEDAPENA Udal-eremua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Vitoria-Gasteiz, 2021

Argitaraldia:

1.a, 2021eko azaroa

Ale-kopura:

300 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazio Zuzendaritza.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Inprimaketa:

Grupo Delta Ediciones Digitales, S.L.

D.L.:

xxxxxxx



MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA

PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACION

MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREN HEDAPENA UDAL-EREMUAN

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan zein giza eskubideen zuzenbidean. Migratzaileek, asilo-eskatzaileek, familia-laguntzarik gabeko adingabeek eta gazteek, iragaitzazko migratzaileek edo zaugarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Eusko Jaurlaritzak, XI. Legegintzaldiko (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programan jasotakoarekin eta 2030 Agendarekin duen konpromisoarekin bat etorritik, Migrazioako Euskal Itun Soziala bultzatu zuen 2019. urtearen amaieran; itun hori, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gidatuta, 2020ko azaroaren 30ean aurkeztu zuen lehendakariak jendaurreko ekitaldian.

Migrazioako Euskal Itun Sozialarekin bat egin zuen euskal gizartearen gehiengo zabalak: EAEko alderdi politiko garrantzitsuenek, sindikatuek, enpresa-erakundeek, erlijio-erakundeek, unibertsitateek, kirol klubek eta abarrek; baita atzerriko etorkinen erakunde garrantzitsuek eta atzerriko etorkinei laguntzeko GKE nagusiek ere.

Udalak eta tokiko eragileak Migrazioako Euskal Itun Sozialera biltzea ezinbestekoa da migratzaileen eskubideak bermatzeko, bizikidetzaren hobetzeko eta pertsona guztiei ahalbidetzeko Euskadi proiektu erkidea eraikitzen parte hartzea.


Migrazioako Euskal Itun Soziala bizikidetzaren aldeko konpromiso komuna da. Ez da plan bat, ezta programa bat ere: asmoen adierazpen bat da; jarrera etikoen defentsa jardun sozial eta politikoan; "euskal kontratu sozial bat", Nazio Batuen 2018ko bilkuran onartutako Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularerako Munduko Itunak markatutako ildoari jarraitzen diona.

Euskal Itun Sozialaren hedapena 2021aren amaieran hasi, eta 2023ra arte luzatuko da, eta helburutzat du Itunaren garrantzia eta balioak euskal gizarteko gune guztietara helaraztea. Dokumentu honetan, zenbait ekintza bildu dira, balio horiek tokiko eremuan (bereziki udal-eremuan) gizarteratzeko helburuarekin.

Ekintzen zerrenda hori prestatzen, beren ekarpenekin hartu dute parte migrazioen eta Euskal Itun Sozialaren arloko adituek, udal- eta foru-eremuetakoek; izan ere, zerrendaren helburua da Ituna udaletan hedatzeko gida izatea, berezko eskumen-eremuak errespetatuta eta udalen irizpidearen mende utzita ekintza horiek bakoitzaren premien eta testuinguru espezifikoaren arabera egokitzea.

Beraz, ideien zerrenda bat aurkezten dugu, proposamen-mailakoa, Ituna EAEko udalerrietan sozializatzeko, ekintzen deskribapenarekin eta proposatutakoen antzeko esperientziak egin dituzten teknikarien kontaktuekin ere, hori ekimenak garatzeko baliagarria izango balitz ere.

Espero dugu dokumentu hau baliagarria izatea Migraziorako Euskal Itun Sozialaren balioak gizarteratzeko bide orri gisa, bai eta itun hori Euskadiko lurraldeetan zehazteko tresna gisa ere.



Beatriz Artolazabal Albeniz
Berdintasun, Justizia
eta Gizarte Politiketako sailburua



TOKIKO IRRATSAIOA

DESKRIPZIOA

- Komunikazio-esperientzia bat, tokiko estazio baten bidezko irratsaio batean oinarritua.
- Helburua da Itunaren eta haren ezaugarrien berri ematea zuzeneko edo grabatutako programa batean, Itunaren edo migrazioen arloko adituekin egindako elkarrizketa baten bidez.
- Lehenengo fasean, Itunaren edukia landuko da hautatutako komunikabidearekin eta irratsaioan parte hartuko duten kazetariekin. Saio horretan, programa egituratuko da, eta garrantzia emango zaie Itunaren funtsezko alderdiei: izateko arrazoa, bizikidetzarako onurak eta gizarte osoarekin partekatutako erantzukizunari, hura sustatze aldera.
- Programan zehar honako hauek eztabaidatuko dira: Itunaren indarguneak eta ahuleziak, migrazioek ezaugarriak Euskadin eta udalerrian, eta udalarentzat, entzuleentzat eta esatarientzat bereziki interesgarriak diren beste gai batzuk.
- Linea bat irekitzea ere proposatzen da, entzuleek eurek egin ditzaten Itunari buruzko galderak edo iruzkinak.
- Hobe da tokiko irratiak/estazioak erabiltzea; edo, are gehiago, komunitarioak, jende askorengana iristen direlako.

ESPERIENTZIAK:

Ermuko Udala- Ane Enzunza
aenzunza@udalermua.net



BERTSOLARIEN SAIOA (MIGRAZIOARI BURUZKO “BERTSO-ZIENTZIA”)

DESKRIPZIOA

- “Bertso-zientzia” izeneko ekimen arrakastatsuen ildotik, zenbait testuinguru eta udalerritan egin baita zientzia jendeari hurbiltzeko asmoz, antzeko eredu bat proposatzen da migrazioen eta Itunaren gaia jorratzeko.
- Saio txikiak izango dira, biltoki publikoetan eginak, pertsona migratuek emanak. Ahoz, entzuleen aurrean, beren esperientziaren hainbat alderdi azalduko dituzte: euskara ikasteko prozesua, etorkin gisa duten ekintzailtza, familia berriz elkartzea eta abar. Adituek ere parte har dezakete (gizarte-mugimenduetakoek, ikertzaileek...), Itunari lotutako gai jakin bati buruzko esku-hartzea egiteko.
- Migratzailearen hitzaldia (3-5 minutu ingurukoa) amaituta, bertsolariak bat-batean botako ditu bertsoak, eta dinamika hori behar beste aldiz errepikatuko da.
- Pertsona migratzaile bat eta bertsolari bat (figura guztiz sinbolikoa euskal kulturaren jardunean) elkartuko dira, eta horrek Itunaren balioak erakuts ditzake.



ETORKIZUNEKO PLANAK ITUNERA EGOKITZEA MAINSTREAMING-A – ITUNAREN ZEHARKAKOTASUNA

DESKRIPZIOA

- Udalaren etorkizuneko plan eta jardunak Itunaren balioei zeharka atxikiko zaizkiela ziurtatzeko, prestakuntza-saioak egitea iradokitzen dugu, balio horiek zein diren, zenbateko garrantzia duten eta politika publikoko ekintzetan kontuan ez hartzearen ondorioen inguruan sakontzeko.
- Bi prestakuntza-saio dira (bakoitza bi ordukoa), talde txikitan egitekoak, sailka, immigrazio-teknikariekin edo, halakorik ezean, Itunean eta migrazioaren arloan adituak diren langileekin.
- Itunaren balioak ulertzea eta hausnartzea lortu nahi da, bakoitzaren lanarekin nola uztartzen diren ikustea, etorkizuneko ekintza guzti-guztietan kontuan hartzeko.
- Gainera, balio nagusiak jasotzen dituen material infografikoa (kartelak, posterrak, txartelak...) emango da, kontsultarako erabiltzeko edozein jarduketa prestatzeko orduan.
- Asmoa da politika publikoen erabakitze- eta kudeaketa-prozesuen parte izatea; eta helburu zehatzagoak, emaitzak, adierazleak eta abar hedatu ahal izatea, etorkizunean Itunaren betetze-maila ebaluatzeko.
- Ekintza honek epe luzerako aldaketa-helburu bat du.



WORLD KAFAEA: ZER EGIN DEZAKEZU ITUNA ETA BERE BALIOAK GIZARTERATZEKO?

DESKRIPZIOA

- Helburua da herritarrak inplikatzera Itunaren bigarren ildoan (“Elkarbizitzaren aldeko konpromisoa”). Printzipio honetan oinarritzen da: bizikidetzaren guztion ardura da, eta pertsona bakoitzaren zeregina da bere buruari galdetzea zer egin dezakeen bere ingurune hurbileneko bizikidetzaren hobetzeko.
- Dinamikaren antolaketa. Landu beharreko galderei eta jaso nahi diren ekarpenei buruzko erabakia hartzea. Norbanakoaren eta taldearen atxikimendua suspertu nahi da.
- Mahaietako dinamizatzaileak hautatzea. Prestakuntza-saio bat, Itunaren edukiari eta world kafea gauzatu bitartean izango dituzten dinamizazio-funtzioei buruz.
- Herritarrei deialdia egitea (gizarte-eragileei eta norbanakoei).
- World kafearen garapena. Gune ireki edo itxi batean izan daiteke; baina gune ireki batean egitea iradokitzen da, oihartzun publiko handiagoa izateko.
- Galdera honi erantzungo zaio: zer oinarritzko konpromiso har dezakezu Itunaren balioekiko?
 - 1. mahaia: Pertsona gisa, banaka
 - 2. mahaia: Zure familian, kuadrillan, lan-ingurunean, gizartean
 - 3. mahaia: Zure elkartean
- Itunarekin zerikusia duten pertsonak gidatuko dituzte bilerak: saioa dinamizatuko dute, eta galderak egingo dituzte banakako hausnarketa egiten laguntzeko.
- Txosten bat egitea jasotako ekarpenekin, eta dinamizatzaileekin egiteko azken bilera bat antolatzea. Emaizak parte-hartzaileei itzultzea.

ESPERIENTZIAK:

Ermuko Udala- Ane Enzunza
aenzunza@udalermua.net



ITUNAREN IDEIA NAGUSIAK POSTONTZIETAN BANATZEA

DESKRIPZIOA

- Itunaren dokumentuko ideia eta kontzeptu nagusiak jasotzen dituen koadernotxo bat egin.
- Helburua da laburbilduta gizarteratzea zer tratamendu ematen dion Itunaren dokumentuak euskal gizartearen aniztasunari, balio gisa, eta herritartasun inklusiboari, ikuspegi hauek aintzat hartuta: giza eskubideak, emakumea, berdintasuna, enplegua, hezkuntza inklusiboa, aukera, narratiben eta diskurtsoen inportantzia eta tokikoaren garrantzia.
- Postontzietan banatzeko ohiko metodoaren bidez, udalerriak egindako material fisikoak, Itunaren ideia nagusiak ikusteko moduan jasotzen dituztenak, bidaltzen zaizkie udalerriko bizilagunei.
- Materialetan, infografia bat sar daiteke, Itunaren ideiak, helburuak eta balioak jasoko dituena; bai eta udalerriak Ituna hedatzeko egingo dituen ekitaldietarako gonbidapenak eta kontsultarako beste baliabide batzuk ere.
- Tokiko jardunaldi bat, festa bat, egin daiteke, eta Itunaren zabalkundea aukeratutako ekitaldiarekin lotu daiteke, proposatu den programazioaren esparruan hedatzeko.

ESPERIENTZIAK:

Ermuko Udala- Ane Enzunza
aenzunza@udalermua.net



HEZKUNTZA-PRESTAKUNTZA ESKOLETAN

DESKRIPZIOA

- Unitate didaktiko bat sortzea, Euskadiko migrazioa (historikoa eta garaikidea) agerian utziko duena eta eskola-curriculumean sartuko dena.
- Memoria berreskuratzea, giza eskubideak eta migrazioen inguruko eztabaida handiak.
- Migrazioetako adituen laguntzarekin, tokiko teknikariek unitate didaktiko bat garatzea proposatzen da, udalerriko eskoletan irakasteko.
- Unitate horren gai nagusia migrazioen balioa izango da, eta ikuspegi historikoa ere sartuko da, giza eskubideekin eta bizikidetzaren aldeko guztion konpromisoarekin batera.
- Itunari, haren balioei eta Eusko Jaurlaritzak eta udalerriek gauzatu beharreko ekintzei buruzko informazioa ere jasoko da.
- DBHko eta Batxilergoko ikasleek unitate didaktiko hori jasoko dute, ordu eta erdiko bi hitzalditan, Euskadiko migrazioei buruzko banakako eta taldeko hausnarketa-ariketak eta guzti.
- Ikasleei proposatzen zaizkien hausnarketa-ildo batzuk biltzen dituen pdf bat sortuko da, ikus-entzunezko materialarekin batera. Guztia euskarri digitalean/hodeian sartuko da, eta irakasleen artean banatuko da.
- Unitate didaktikoa ikasgelan aplikatzeko moduari buruzko prestakuntza-saio bat antola daiteke irakasleentzat, eduki horiek eskura izan ditzaten ikasgela, maila eta ikasturte desberdinetan emateko.

ESPERIENTZIAK:

Ermuko Udala- Ane Enzunza
aenzunza@udalermua.net
Durangoko Udala – Verónica Redondo
vredondo@durango.eus



ESKOLETAKO UNITATE DIDAKTIKOAREN PRESTAKUNTZA ERREPIKATZEA HIRI LAGUNKOIA +60 SAREAN

DESKRIPZIOA

- Aurreko ekintzarako sortutako unitatearen bidez, beste bi prestakuntza errepikatzea Hiri Lagunkoia +60 sareekin.
- Euskadiko migrazioari (historikoa eta garaikidea) balioa ematen dion unitate didaktikoa berrerabiltzea.
- Hiri Lagunkoia +60 sareko parte-hartzaileek unitate didaktiko hori jasoko dute ordu eta erdiko bi hitzalditan, Euskadiko migrazioei buruzko banakako eta taldeko hausnarketa-ariaketak barne hartuta .



IKASLE GAZTEENTZAKO IRRATI-TAILERRAK

DESKRIPZIOA

- Helburuak: arrazakeria eta xenofobia prebenitzea, balio hauek sustatzearen bitartez: tolerantzia, elkartasuna, bizikidetzeta eta giza eskubideekiko errespetua.
 - Berdintasunezko aniztasuna posible eta garrantzizko dela kontzientziatzea.
 - Gure aurreiritziez jabetzea, neutralizatu ahal izateko eta ikasitako automatismoak hausteko.
 - Beldurretik babesteko ditugun mekanismoek jabetzea, aurre egiteko estrategiak bilatzeko, inori kalterik egiten ez diotenak.
 - Ikaskuntza- eta aldaketa-esperientzia positiboa eta dibertigarria sortzea.
 - Parte-hartzaileen ondorioak irratsaio baten bidez zabaltzea eta partekatzea.
- Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea.
- Prestakuntza- eta irrati-tailerra bi fasetan garatuko da:
 - 1. fasea: ikasgelako prestakuntza-tailerra, diskriminazioari eta tratu txarrei buruzko oinarriko kontzeptuak lantzeko. Iraupena ordu eta erdikoa izango da.
 - 2. fasea: irratsaio bat prestatzea eta emititzea. Fase honetan, aurreko fasean parte hartu duten ikasgeletako ikasle talde txiki batek parte hartuko du.
- Bi gune horietan, prestakuntzan zein irrati-tailerrean, pertsona migratzaileek parte hartuko dute; haien migrazio-errealitatea eta integrazio-prozesua ikasleei zuzenean hurbiltzeko, elkarriketa-aren eta aurreiritzien konfrontazioaren bidez, eta jarrera aldaketa bultzatzeko, ez soilik osagai kognitibotik begiratuta, baizik eta baita lotura afektibotik abiatuta ere.

ESPERIENTZIAK:

Durangoko Udala - Verónica Redondo
vredondo@durango.eus



ANTZEZLAN BAT EKOIZTEA

DESKRIPZIOA

- Era ludiko eta sortzailean Itunaren balioak jasoko dituen antzezlan baten gidoia idaztea sustatzea.
- Zuzenean jo daiteke antzerki-talde jakin batengana, edo deialdi bat ireki, taldeak aurkez daitezen; dirulaguntza esleituko zaio dagokion taldeari, gidoiaren ekoizpena egin dezan, eta udalerrian antzeztu, ikus-entzuleen aurrean.
- Obraren gidoia askotariko ikusleentzat egin daiteke, udalerrriaren eta bertako eragileen prestasunaren araberak: gazte eta ikasleetatik hasi eta antzerki munduko profesionaletara.



LEHIAKETA ARTISTIKOA (BELDUR BARIK)

DESKRIPZIOA

- *Beldur barik* ezagunaren ereduari pixka bat jarraituz, 15-26 urteko pertsonentzako arte-lehiaketa bat sortzea proposatzen da.
- Lehiaketaren xedea ikus-entzunezko lan artistikoak izango dira, film laburren estilokoak, migrazioek herrian edo Euskadin duten eragina jasotzen dutenak, eta Itunaren balioak ere barne hartzen dituztenak.
- Migratzaileen eta migrazioen arloko adituen epaimahai bat antolatuko da, hiru obra aukeratzeko, Itunaren balioei ondoen egokitzen zaien diskurtsoa dutenak.



ZINEMA IKUSEZINAREN JAIALDIAN AURKEZTU-TAKO FILMAK PROIEKTATZEA

DESKRIPZIOA

- 2021eko Zinema Ikusezinaren Jaialdian aurkeztutako materiala aprobetxatuz, jaialdi horretan aurkeztutako film batzuekin zinema publikoa egitea proposatzen da.
- Kulturartekotasunaren kategorian eskuragarri dauden eta aurkeztu diren 11 filmetatik, interesgarritzat jotzen diren eta Itunaren balioekin lotura handiena duten film luzeak aukeratuko dira, eta jendaurrean proiektatuko dira, irekian, zineklubeko ziklo batean.
- Horretarako, proiektiorako eskubideen lagapena izapidetu behar da; eta areto bat egokitu behar da, jarduerarako edukiera, proiektore eta pantaila egokiekin.
- Saio zinematografikoaren ondoren, hausnarketa kolektiboko jarduera labur bat egin daiteke film luzeari eta Itunarekin duen harremanari buruz; galdera-txanda baten bidez edo, besterik gabe, entzuleen arteko eztabaida ireki baten bidez.

ESPERIENTZIAK:

Bilboko Udala - Ekain Larrinaga
elarrinaga@bilbao.eus



BOOKTRAILER LEHIAKETA

DESKRIPZIOA

- Booktrailer lehiaketa gizarte- eta hezkuntza-proiektu bat da, 11 eta 17 urte bitarteko gazteen artean balioetan oinarritutako hezkuntza eta irakurzaletasuna sustatzera bideratua.
- Honako hau errazten du: beste errealitate batzuetara hurbiltzea, gaitasunak garatzea (elkarrizketa, azterketa eta ulermen kritikoa, enpatia eta arrazoiketa morala...), jarrerak eta balioak garatzea, eskolaren eta ingurunearen arteko harremanetarako espazioa, ardatz tematiko-estruktural hau: giza eskubideak, bakea, bizikidetzeta, aukera-berdintasuna, tolerantzia, errespetua, arrazakeriaren prebentzioa eta diskriminaziorik eza.
- Helburu orokor hauek ditu: giza eskubideei buruzko, giza eskubideen aldeko eta giza eskubideetarako hezkuntzan oinarritutako hezkuntza-proiektu bat bultzatzea, giza eskubideen arazo espezifikoei buruzko hausnarketa erraztuko duena, literaturaren bidez eta partaidetzazko eta lankidetzazko ikaskuntza-prozesu bat aktibatuz.
- Beste helburu bat da booktrailerrean oinarritutako estrategia didaktiko bat garatzea, irakurketarako interesa piztu, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna garatu, aztertzeko, laburtzeko eta argudiatzeko gaitasuna hobetu, eta tresna digitalak menderatu eta erabiltzeko trebetasunak garatzeko.
- Metodologia:
 - Kontzientziazteko, sentsibilizatzeko eta motibatzeiko ikaskuntza.
 - Ikaskuntza partizipatiboa eta kooperatiboa.
- Tresnak:
 - Liburu bat irakurtzea.
 - Irakurritako liburuari buruzko literatur solasaldiak.
 - Booktrailer bat egiteari buruzko saio teknikoak.
 - Irratsaioa idazle, ilustratzaile edota adituekin.

ESPERIENTZIAK:

Durango Udala - Verónica Redondo
vredondo@durango.eus



KULTURARTEKO LIBURUTEGIAK

DESKRIPZIOA

- Jarduera honen helburua da Itunaren balioekin bat datozen liburuak ikusaraztea liburutegi-sareetan; batez ere, migratzaileek idatziak.
- Udal liburutegiekin lan eginez, Itunaren zigilua izango duten liburu gomendatuen hautaketa berezi bat egitea proposatzen da; migrazioei, arrazakeriari, xenofobiari eta abarri buruzko liburu-sorta.
- Garrantzitsua da hautatutako irakurketa horien artean gehienak egile migratzaileak eta atzerriko nazionalitateetakoak izatea.

ESPERIENTZIAK:

Getxoko Udala (Getxo Liburutegia) - Anabel Regalado

<https://www.getxo.eus/eu/inmigracion/programas-de-sensibilizacion-getxo-entre-culturas/munduko-paisaiak>



GIZA LIBURUTEGIAK

DESKRIPZIOA

- Giza Liburutegiaren proiektua tratu-berdintasunaren aldeko politikak eta ekintzak bultzatu beharretik atera da, jarduteko estrategia integralak garatu beharretik, eta topaketarako eta elkarrizketarako guneak baliatzen ditu.
- Giza Liburutegia 2000. urtean abiarazi zuten lehen aldiz, Kopenhageko (Danimarka) Stop The Violence GKEaren eskutik, Roskildeko udako jaialdiaren testuinguruan. Giza Liburutegiaren helburua da elkarrizketa sustatzea indarkeriaren eta diskriminazioaren aurrean; eta tolerantzia eta ulermena bultzatze kultura, erlijio, etnia eta bizitza-estilo desberdinetako pertsonen artean. Horretarako, egoera normalean harremanik izango ez luketen pertsonen arteko elkarrizketarako eta trukerako gune bat sortu nahi da, giza aniztasunaren eta gizarte-elkarreraginaren ezagutza bultzatzeko.
- Giza Liburutegiaren izena liburuak pertsona izateari zor zaio, hau da, giza liburuak, beren hitzekin beren bizitzaren istorioa kontatzen duten eta irakurleekin aurrez aurre hitz egiteko eta beren galderi erantzuteko prest daudenak.

ESPERIENTZIAK:

Durangoko Udala - Verónica Redondo

vredondo@durango.eus

Zurumurruren aurkako Estrategia, Vitoria-Gasteiz - Irune Ibarrondo

iibarrondo@vitoria-gasteiz.org



FIXTIONS. ELKARLANEKO FIKZIOAK, AZALERATZEN ARI DIREN ERREALITATEETAN ESKU HARTZEKO, ESPEKULATZETIK ABIATUTA

DESKRIPZIOA

- Etorkizunari aurrea hartzea orainaldian dauden itzaropenak jokoan jartzea da, etorkizuneko oinarri eta aukerei forma emateko. Horiek aztertzea edo esplizitu egitea baliagarria izan daiteke orainaldian pilatzen diren etorkizun anitzak ezagutzeko, egituratzeko eta kudeatzeko.
- Fikzioa irudimenezko egoera desberdinetan gertatzen dena esperimentatzeko modalitate bat da; beraz, gero bizitza errealean balioko diguten orokortasunak atera ditzakegu.
- Fixtions-ek lankidetzazko fikzio transmediako esparru metodologiko esperimentalak proposatzen du. Alderdi narratiboan zentratzen da, produktuaren diseinuan baino gehiago, eta kontakizunaren gaitasunak baliatzen ditu irudimenezko unibertso bat sortzeko, prototipo espekulatiboaren diseinua eta haien mihiztadurak esploratzeko aukera ematen duena. Prozesua hainbat adierazpide erabiliz gauzatzen da, eta emaitza izaten da kolektiboki ekoiztutako narratiba transmedia bat.
- Azaleratzen ari diren errealitateak esploratzeko tailerra, egungo gizarteetan gertatzen ari diren aldaketak aintzat hartuta, mundu osoko migrazio-prozesuetan baitute jatorria.
- Helburua da hirien etorkizunari buruzko narratiba bat lantzea eta eraikitzea, kulturarteko hiriak nolakoak izango diren edo nolakoak izan beharko luketen azaltzeko, udalerrian/Euskadin sortzen ari diren errealitateei buruzko fikzio espekulatiboa eta lankidetzazkoa eraikiz zenbait eragileren artean.

ESPERIENTZIAK:

Getxoko Udala – Amaia Gomez
aangulo@getxo.eus



THE MACHINE TO BE ANOTHER (BE ANOTHER LAB).

DESKRIPZIOA

- The Machine to Be Another irudikatutako errealitate birtualeko sistema bat da, pertsoneri mundua beste pertsona baten begiz eta gorputzez esperimentatzeko aukera ematen diena.
- Errealitate birtuala, zientzia kognitiboak eta elementu performatiboak konbinatzean, TMTBA sistemak aukera ematen die erabiltzaileei beren burua beste gorputz batean ikusteko, espazioan ukipenezko atzeraelikadura errealistarekin mugitzen eta jarduten duten bitartean.
- TMTBA delakoak plataforma ireki gisa funtzionatzen du, bata bestearen lekuan jartzeko aukera ematen duten esperientzia murgiltzaileak elkarrekin diseinatzeko. Epe luzearako ikerketa horren xedea da testuinguru sozial, kultural eta ideologiko desberdinetako pertsonen arteko enpatia sustatzea, nortasunaren lerro banatzaileen bidez ekintza zibiko partekatua errazteko helburuarekin. 20 herrialde baino gehiagotan erabili da, kultura-aurreiritziak, immigrazioa, belaunaldi-loturak, gatazken konponbidea eta gorputzaren hedapena eta antzeko gaiak lantzeko.
- “Body-Swap” esperientziak aukera ematen die bi parte-hartzailerik “gorputzak trukatzeko” eta perspektibak trukatzeko, The Machine To Be Another irudikatutako errealitate birtualeko sistema erabiliz. Esperientzia horretan bi bideratzaile daude tarteko, ukimenaren, objektuen eta ispiluen erabilera koreografiatzen dutenak.

ESPERIENTZIAK:

Getxoko Udala – Amaia Gomez
aangulo@getxo.eus



ROBOTIKA

DESKRIPZIOA

- Roboteka argazkigintza parte-hartzaileko tailer bat da, «erretratu robotaren» edo photofit-aren gaian oinarritua. Desplazatuerei, migratzaileei eta errefuxiatuei eskaintzen zaie; baina baita harrera-komunitateei ere.
- Identitate hibridoak sortzeko tailerra, hiri-eremuan egiten dena: argazki-saio batean parte hartzeko gonbita egiten da, gero argazki horiek eta beste pertsona batzuenak erabiltzeko identitate berriak sortzeko.
- Robotekak partekatutako istorioen, elkartzeen eta oroitzapenen katalizatzaile izan nahi du, hitzak eta aurpegiak jarritz. Nortasun berri bat agertzen da mestizajearen eta kultura-trukearen bidez. Tailerra arteterapian inspiratuta dago eta talde-terapia gisa funtzionatzen du. Artea tresna psikologiko bihurtzen da, barneko nia sendatzen hasten dena. Zentzumenak esnatu egiten dira; eta adin eta jatorri guztietako parte-hartzaile horiek elkarri begiratu eta negar egiten dute, begiekin. Sentitu egiten dute eta arnasa hartzen dute, sudurrarekin. Entzun eta ulertu egiten dute, belarriekin. Oihu eta salatu egiten dute, ahoarekin.
- Estudioko argazki-tailer batean egindako autoargazkietatik abiatuta lan eginez, parte-hartzaileek aurpegi piezak muntatzen dituzte, aurpegi berriak sortzeko eta ahotsa emateko. «Erretratu robotak» aurpegi inperfektu berriak sorrarazten ditu, ahal bezain ongi elkartzen direnak. Begi bazterretan, ezpainen inguruan, aurpegi horien arrastoak erbesteko bidearen lekuko dira; han behean, bidean, eta gero hemen integrazio soziokulturaleko prozesu batean. Eta adin eta jatorri guztietako parte-hartzaile horiek elkarri begiratu eta negar egiten dute, begiekin. Sentitu egiten dute eta arnasa hartzen dute, sudurrarekin.

ESPERIENTZIAK:

Getxoko Udala – Amaia Gomez
aangulo@getxo.eus



TAILERRETIK AGERTOKIRA; LIVE CINEMA, A/V_# SORKUNTZA-PARADIGMA BERRIA. IDENTIBUZZ BERBISITATUA

DESKRIPZIOA

- Zuzeneko proiektzioak dituzten praktika performatiboen barruko genero bat da Live Cinema; kontzeptu baten gainean lan egiten duten artistek denbora errealeko ikus-entzunezko sorkuntzari erreferentzia egiten dion ikuskera berri bat da; definizioz, eta ikus-entzunezko lan konbentzionalen kontra, iragankorra eta bakarra. Live Cinemako artistek ikus-entzunezko esperimendazioaren tradizioari jarraitzen diote; gaur egun, teknologia digitalen laguntzarekin.
- Ikus-entzunezko sormen-tailer hau gehienez profil desberdineko 10 pertsonentzako lan-espazio gisa proposatzen da (musikaren arloko jendea; ikus-entzunezkoen, performancearen, dantzaren edo antzerkiaren arloko jendea; eta landu beharreko gaiaren inguruko ezagutza duen jendea).
- Metodologia praktikoa batzuetatik abiatuta, zuzeneko film bat egingo da parte-hartzaile guztien artean; eta kontzertu formatuan aurkeztuko da tailerraren amaieran, bideoarekin eta zuzeneko musikarekin. Tailerrean obraren egitura eta edukiak zehaztuko dira; eta abenduaren 18an, Migratzaileen Nazioarteko Egunean, aurkeztuko da zuzenean.
- Ikus-entzunezko adierazpen esperimendal berriak eta EAEko hainbat diziplinatako profesionalentzat askotariko publikoetara iristeko modu berriak ezagutarazi nahi dira.

ESPERIENTZIAK:

Getxoko Udala – Amaia Gomez
aangulo@getxo.eus



(MIKRO)NARRATIBA MUGIKOR ESPREEKO TAILERRAK

DESKRIPZIOA

- Udalerriko auzoetan bizi diren atzerritarren gaitasunak eta talentua gazteen ikuspegitik erakutsiko dituzten tailerrak, harrera-lurraldearentzat onura galtzearen inguruko hausnarketa bat proposatuz.
- Parte hartzen duten gazteek narratibak modu parte-hartzailean batera sortzeko prozesu batean parte hartzen dute, gailu eta aplikazio mugikorak (Tik Tok, Instagram, bideoa) erabiliz;

ESPERIENTZIAK:

Getxoko Udala – Amaia Gomez
aangulo@getxo.eus

